

Erwitladazkia

2020



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EU



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1. AURKEZPENA

2. ERAKUNDEAREN JARDUERA

2.1. Osoko bilkurak eta Zuzendaritzaren bilerak

2.2. Ekitaldi instituzionalak eta bisitak

- 2.2.1. Ageriko bilkurak
- 2.2.2. Barrengo bilkura
- 2.2.3. Egoitzan antolatutako ekitaldiak eta jasotako bisitak
- 2.2.4. Ordezkaritzetan antolatutako ekitaldiak
- 2.2.5. Bestelako ekitaldi, adierazpen eta bisitak

2.3. Euskaltzainak

2.4. Sariak eta dominak

- 2.4.1. Euskaltzaindiak antolatutako sariak
- 2.4.2. Euskaltzaindiak jasotako sariak eta dominak

2.5. Liburu azokak

- 2.5.1. Sarako Idazleen Biltzarra
- 2.5.2. Bilboko Liburu Azoka
- 2.5.3. Durangoko Azoka

2.6. Ekimen artistiko-kulturalak

2.7. Lankidetzaren hitzarmenak

3. JARDUERA AKADEMIKOA

3.1. Iker saila

- 3.1.1. Hiztegiak
Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak
Orotariko Euskal Hiztegia Zientzia eta Teknologia Hiztegia egitasmoa
Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa
- 3.1.2. Gramatika batzordea
- 3.1.3. Dialektologia
Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa
- 3.1.4. Onomastika
Onomastika batzordea
Exonomastika batzordea
Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa
- 3.1.5. Literatura
- 3.1.6. Ahoskera
Ahoskera batzordea

3.2. Jagon saila

- 3.2.1. Corpus batzordea
- 3.2.2. Euskalkien lantaldea
- 3.2.3. Sustapen batzordea
- 3.2.4. Joanes Etxeberri egitasmoa

3.3. Egiturazko batzorde, lantalde eta egitasmoak

- 3.3.1. Argitalpen batzordea
- 3.3.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea
- 3.3.3. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) batzordea
- 3.3.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra
- 3.3.5. Euskara Eskuz Esku egitasmoa

4. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

4.1. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua

4.2. Onomastika zerbitzua

4.3. Argitalpen zerbitzua

4.4. Informatika zerbitzua

4.5. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

4.6. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua

5. GIZARTERATZEA: WEBGUNEAK ETA SARE SOZIALAK

6. BALANTZE EKONOMIKOA

1. AURKEZPENA

Euskaltzaindiaren urteko oroitidazkia argitaratzeko unea iritsi zaigu berriro. Eta, ohi bezala, agiri hau baliatzen dugu Akademiak aurreko urtean egindako ohiko eta ezohiko bileren, antolatutako ekitaldien, kaleratutako argitalpenen, sinatutako lankidetzaz hitzarmenen, batzordeek eta lantaldeek bideratutako egitasmoen eta, oro har, Euskararen Akademiak 2020an sustatutako ekimen guztien berri emateko.

2020koa oso ekitaldi zaila izan da alderdi guztietatik, koronabirusak (COVID-19) sorrarazitako mundu mailako izurritearen eraginez, pertsonengan –berezik, norbanakoen osasunean– eta jarduera ekonomikoan izan dituen ondorio kaltegarriak direla medio, horiek guztiek nabarmen baldintzatu dute erakunde publiko eta pribatu guztien jarduera, eta jakina, baita Euskaltzaindiarena ere. Ingurumari horretan, martxoaren 13an, behin alarma-egoera ezarri zen ezker, Akademiak bertan behera utzi zituen martxoko eta apirilko Osoko bilkurak, euskaltzainak era telematikoaz bildu ziren maiatzean, eta

ekinetik aurrera *gutxi gorabeherako normaltasunaz* ekin zion berriro bere jarduerari, betiere pandemiaren hedapenari aurre egiteko administrazio eskudunak hartutako neurriak zorrotz betetzen zirela. Gainerakoan, aurrez aurreko ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituen Akademiak bigarren hiruhilekoaren zati handi batean, eta berriro antolatzeari ekin zion, edukia murriztuta eta osasun-neurriak zorrotz jagoz, urtearen bigarren erdian. Datu pozgarri bat ematekotan, esan dezagun Euskaltzaindiaren webgunearen erabilera ia % 25 gehitu zela konfinamendu aldian, eta, oro har, Akademiaren webgune berrituan eskueran zeuden tresnen erabilerak gora egin zuela. Beraz, ondorioztat eman dezakegu erabiltzaileen leialtasuna sendozea lortu dugula.

Kopurutan adierazita, 2020an ia 60 kultura-ekitaldi antolatu dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan eta Gipuzkoako, Iparraldeko eta Nafarroako ordezkarietan, eta 2.000 lagun inguru bertaratu dira eurotara.

Euskara sustatzeko lankidetzaz hitzarmenei gagozkienez, Nafarroako Parlamentuarekin eta Nafarroako Gobernuarekin sinatutakoak nabarmendu behar ditugu 2020an.

Azkenik, esan behar dugu, konfinamendu zorrotzeko aldietan izan ezik, Akademiak ez duela bazterrean utzi batzordeen, lantaldeen, proiektuen eta gainerako ekimenen ohiko lana, eta hainbat bilera egin dituela, batez ere, bide telematikoaz baliatuz, ohiko erabakiak hartzeko; liburuak argitaratzen jarraitu du, eta herritarren kontsulta-eskeei erantzuten ahalegindu da. Izan ere, azken batean, orain dela mende bat eta gehiago sortu zen Euskararen Akademiak, lehen bezala gaur egun ere, globalizazioak bizi gaituen aro honetan, hitzunei zerbitzua eskainiz segitzen du etengabe, unean-unean erabiltzari diren tresnen laguntzaz.

Andres Urrutia, euskaltzainburua

Xabier Kintana, idazkaria

2. ERAKUNDEAREN JARDUERA

2.1. Osoko bilkurak eta Zuzendaritzaren bilerak

2.2. Ekitaldi instituzionalak eta bisitak

2.2.1. Ageriko bilkurak

2.2.2. Barrengo bilkura

2.2.3. Egoitzan antolatutako ekitaldiak eta jasotako bisitak

2.2.4. Ordezkaritzetan antolatutako ekitaldiak

2.2.5. Bestelako ekitaldi, adierazpen eta bisitak

2.3. Euskaltzainak

2.4. Sariak eta dominak

2.4.1. Euskaltzaindiak antolatutako sariak

2.4.2. Euskaltzaindiak jasotako sariak eta dominak

2.5. Liburu azokak

2.5.1. Sarako Idazleen Biltzarra

2.5.2. Bilboko Liburu Azoka

2.5.3. Durangoko Azoka

2.6. Ekimen artistiko-kulturalak

2.7. Lankidetzaren hitzarmenak

2. ERAKUNDEAREN JARDUERA



2.1. Osoko bilkurak eta Zuzendaritzaren bilerak

Euskaltzaindiak Osoko bilkura egiten du hilean behin eta, hala dagokionean, Ageriko bilkura. Osoko bilkurek arau-maila ematen diete batzorde akademikoetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak Bilbon dauka egoitza nagusia eta ordezkaritzak ditu Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza batzordearen

bilerak, arruntan, egoitzan, ordezkaritzetan edo bideo-hitzaldi sistemaren bidez egiten dira, nahiz eta, zenbait kasutan, erakunde edo elkarte batzuen gonbita onartzen den, eta horien egoitzetan ere bilera batzuk egiten diren.

Zuzendaritza batzordea, oro har, hamabostean behin biltzen da. Zuzendaritzako kideak hauek dira: euskaltzainburua, euskaltzainburuordea, idazkaria,

diruzaina eta Iker eta Jagon sailtako buruak. Horiekin batera partaideak dira kudeatzailea eta idazkariordea, estatutuek eta barne arauiek ezartzen duten moduan. Haien zeregina da Euskaltzaindiaren jardunbide ona bermatzea. Kudeatzaileak eta idazkariordeak, jorratu beharreko gaien arabera, arduradun bakoitzarekiko koordinazio-lanak bideratzen dituzte.

2020an, Osoko bilkura hauek egin dira:

2020.01.31

DONOSTIA, Gipuzkoako Foru Aldundia

2020.02.28

BILBO, Bizkaiko Foru Aldundia

2020.03.27

Ez da egin, Covid-19a dela eta

2020.04.24

Ez da egin, Covid-19a dela eta

2020.05.29

Era telematikoan

2020.06.26

DONOSTIA, ordezkaritza

2020.07.17

BILBO, egoitza

2020.09.25

BILBO, egoitza

2020.10.23

DONOSTIA, ordezkaritza

2020.11.27

DONOSTIA, udaletxea

2020.12.18

BILBO, egoitza





2.2. Ekitaldi instituzionalak eta bisitak

2.2.1. Ageriko bilkurak

- Urtarrilaren 31ko Ageriko bilkuran, Euskaltzaindiak Jon Lopategi, Alan Roy King, Angel Aintziburu eta Txomin Solabarrieta omendu ditu. Informazio gehiago [hemen](#) eta [hemen](#).

2.2.2. Barrengo bilkura

- Urriaren 23an Barrengo bilkura egin da, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza berria aukeratzeko. **Andres Urrutiak** Akademiaren buru izaten jarraituko du, eta bere ondoan izango dira **Jean-Baptiste Coyos** (buruordea), **Adolfo Arejita** (idazkaria), **Roberto González de Viñaspre** (diruzaina), **Miriam Urkia** (IKER sailburua) eta **Sagrario Aleman** (JAGON sailburua) euskaltzain osoak. Informazio gehiago [hemen](#).

2.2.3. Egoitzan antolatutako ekitaldiak eta jasotako bisitak

Euskaltzaindiak hainbat ekitaldi antolatu eta bisita jaso ohi ditu bere egoitzan, nahiz eta, esan behar den, COVID-19aren eraginez, nahiko urte agorra izan dela bisitei gagozkiela. Euskaltzaindiak antolatutako ekitaldiez gain, 2020an honako erakunde hauek ere baliatu dute Euskaltzaindiaren egoitza hainbat jarduera egiteko (ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak, aurkezpenak...):

- AIKO taldea.
- Ikastolen Elkarteak.
- Bilbo Zaharra euskaltegia.



2.2.4. Ordezkaritzetan antolatutako ekitaldiak

Donostian

Euskaltzaindiak Donostian eskaintzen dituen zerbitzuen artean, bertako aretoen erabilerarena oso garrantzitsua da. Euskalgintzako eta euskal kulturagintzako eragileek Luis Villasante Ikerlanean aretoak erabili ohi dituzte eta urtetik urtera handituz doa bertan egiten diren ikastaro, bilera eta bestelako enpresa kopurua. Hona hemen Ikerlanean zehatz-mehatz 2020an antolatutakoak:

- **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatutako *Zehar konpetentziak nola landu eta nola ebaluatu* ikastaroa egin da, urtarrilean eta otsailean, 8 egunez.

- **Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak** urtarrilaren 24an mintegia antolatu du itzulpen automatikoaren inguruan.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzak** 6 lan saio egin ditu urtean zehar.

- **Euskaltzaleen Topaguneak**, mintegia antolatu du otsailaren 18an, Euskaraldiaren inguruan.



2020an, guztira, 28 kultura-ekitaldi antolatu dira Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan eta horietara 1.400 lagun inguru bertaratu dira, LAUTAN HIRU antzerki-festibaleko ikusleak ere aintzat hartuta.

Bisitei dagokienez, honako hau jaso da 2020an:

- 2020-10-29: Denis Itxaso, Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkarria, Euskaltzaindian. Informazio gehiago [hemen](#).

Kultura ekitaldiez gain, bi hitzaldi eskaini dira Europako Ondare Jardunaldiaren ildoan eta 2 ikastaro antolatu ziren egoitzan.



- Euskaltzaindiak euskaraz ahoskatzen ikasi eta irakasteko bi ikastaro antolatu ditu irailaren 18an eta abenduaren 11n.
- Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Euskaltzaindiak ondutako **Euskararen Herria Ehuntzen** unitate didaktikoa aurkeztu da urriaren 9an.
- Mintzola Fundazioak eta Mikel Laboa Katedrak antolatutako **Ahostegunak** ekimena urrian eta azaroan, 5 astez.
- Euskaltzaindiaren **XXV. Jagon jardunaldia** egin da, azaroaren 6an, **Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei?** izenburupean.
- **Euskal Idazleen Elkartearekin** elkarlanean Euskara Batuaren Eskuliburua egoki eta modu eraginkorrean erabiltzeko saioa antolatu da azaroaren 18an.

2020an, beraz, 26 ekitaldi antolatu dira Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkartzan eta horietara 470 lagun inguru bertaratu dira.

Baionan

Baionako ordezkartzatik honako hauek antolatu dira 2020an:

- Euskaltzaindiak gaualdia antolatu zuen Baionako Kalostrape ostatuan, urtarrilaren 22an, **Euskaltzaindia: egunak eta lanak** dokumentala, **Berri Gogoa** liburua eta **Euskaltzaindia, euskararen 100 urteko laguna** komikia oinarri hartuta.
- Iparraldeko Euskaltzaindiaren biltzar nagusia, pandemiarengatik, era telematikoan antolatu zen maiatzaren 18an.
- Urriaren 29an, **Emil Larre 1926-2015: lekukotasun, kantu eta idazkia** liburuaren aurkezpena egin da Baionako Kontseilu nagusiaren gela batean.



2.2.5. Bestelako ekitaldi, adierazpen eta bisitak

- 2020-09-22: Euskaltzaindiak Euskaraldian parte hartzeko deia egiten die euskal herritarrei.

- 2020-10-09: *Euskararen Herria Ehuntzen* unitate didaktikoa aurkeztu zen. Informazio gehiago [hemen](#).

- 2020-11-30: Gasteizko Udalak Euskaltzaindiari laga dio Etxezarra etxearen zati bat. Informazio gehiago [hemen](#).



2.3. Euskaltzainak

2020an, honako euskaltzain hauek hil dira:

Juan Antonio Letamendia euskaltzain urgazlea (Donostia, Gipuzkoa, 1940 – Hondarribia, Gipuzkoa, 2019). Gaztetan euskaldunduta, emaitza bikainak eskaini zituen euskalgintzan: idazle hasieran; irakasle gero, metodogile trebe; itzultzaile eta ikertzaile ere izan zen neurri batean; eta euskarazko komikigintzan ere ale bikainak eskaini zituen. Adibide gisa aipa daitezke, euskara ikasteko berak ezarri zuen *Jalgi Hadi* metodoa, *Bakarka* saila -lehen hiru liburuak Letamendiak egin zituen-, edo Euskaltzaindian eginiko lan eskerga, batez ere Dialektologia batzordean.

Jean-Baptiste Etxarren euskaltzain urgazlea (1928, Donazarre, Nafarroa Beherea - 2020). Euskal ondarea maite zuen, idazle fina zen, euskaraz ala frantsesez berdin trebe, gaztelaniaz ere bai. Nafarroako historia jorratu zuen batez ere: ikerketa sakonak akuilatu zituen lehengo bizimoldeez, lehengo lanez eta gaineratikoez. Nafar guztien arteko elkartasunaren sustatzaile porrokatua izan zen. *Herria* astekarian publikatu zuen artikulua ugari, eta zenbait liburu argitaratu, tartean, *Luzaiden gaindi* (Elkarlanean, 2002-2009).

Angel Ibisate euskaltzain urgazlea (1932, Gasteiz, Araba - 2020). Gasteiztar petoa zen. Arabako AEKren sortzaileetarikoa izan zen, eta urte askotan Gasteizko Elizbarrutiaren Seminarioko bibliotekari izan zen. Orduan hasi zen haren ikerketa-lana eta artxibategiko inkunableen ezagutza izugarria zuen. Iturrien ezagutza handiari esker, beste autore batzuen lanak datu berriez hornitu zituen.

Pierre Andiazabal euskaltzain ohorezkoa, apaiz eta itzultzailea (Urruña, Lapurdi, 1923 - Kanbo, Lapurdi, 2020). Meza euskaraz ematearen aldeko mugimenduan garrantzi handia izan zuen; euskarazko liturgiaren aita izan zen. Horrela, 3.000 orrialdetik gora itzuli zituen eta *Othoizlari* aldizkarian publikatu ziren gehienak. Berari zor zaio, eliza guztietan dozena mila aletan zabaldua dagoen *Igandetan Elizan* liburuxka, mezako otoitz eta kantuekin hornitua. *Lapurdi Irratian* ere ibili zen eta baita *Herria* aldizkarian ere. Eta Txilardegiren gidaritzapean egin ziren Euskal Idazkaritzako batzar bat bera ere ez zuen galdu. Gogoratu behar da 1964an Idazkaritza horretan landu zirela beranduago Arantzazuko biltzarrak hartuko zituen erabakiak.

Joan Mari Torrealdai euskaltzain emeritua (Forua, Bizkaia, 1942 - Usurbil, Gipuzkoa, 2020). Kazetaria, idazlea, irakaslea, ikertzailea, kultur sustatzailea... Zenbait aldizkariren zuzendari (*Gure Izarra*, *Anaitasuna*, *Jakin*) eta kudeatzaile (*Euskaldunon Egunkaria*, *Jakin*) izan zen. Produktzio izugarria utzi zuen: 24 liburu, 47 lankidetzeta, 517 artikulua, hiru itzulpen-lan, bi edizio-lan... 13.614 orrialde denetara. Euskaltzaindian Argitalpen batzordeko kide eta Azkue liburutegiko bibliotekari akademiko izan zen, eta Euskaltzaindiaren historia idatzi zuen, Imanol Muruarekin batera.





2020ko uztailaren 17ko Osoko bilkuran, aldiz, **Paskual Rekalde euskaltzain oso** izendatu zen, Andres Iñigoren hutsartea betez.

Euskaltzainak zenbakitan

2020-12-31



Osoak
Ohorezkoak
Urgazleak
GUZTIRA

GUZTIRA
29*
42
145
216

*Euskaltzain osoen artean, 5 emerituak dira

2.4. Sariak eta dominak

2.4.1. Euskaltzaindiak antolatutako sariak

- Irailaren 18an banatu dira 2019ko Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak.

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak 1991. urtetik antolatzen dituzte haur eta gazteentzako literatura sari hauek. Bi kategoriatan banatuta daude: A kategoria, 10 eta 13 urte bitarteko ikasleentzat, eta B kategoria, 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Kategoria bakoitzean, bi literatura-genero saritzen dira: narrazioa eta olerkia.

A kategorian (10 eta 13 urte bitartekoak), **Ekain Errazu** -narrazioan- eta **Unai Oruesagasti** -poesian- gailendu dira; B kategorian (14 eta 17 urte bitartekoak) **Amaiur Puente** -narrazioan- eta **Idoia Zabalo** -poesian- gailendu dira. Informazio gehiago [hemen](#).

- Urriaren 15ean [2020ko R. M. Azkue Literatura Sarietarako deialdia](#) egin zuen Euskaltzaindiak.
- Irailaren 9an [Euskarazko Tesien VII. Koldo Mitxelena Sari deialdia](#) egin zen.



2.4.2. Euskaltzaindiak jasotako sariak eta dominak

. Eusko Ikaskuntzak [Jose Ramon Etxebarriari](#) eman dio 2020ko Manuel Lekuona Saria.

. [Sabino Arana saria](#) jaso du Andres Urrutiak.

. Nafarroako Gobernuak [Karlos III.aren Gurutzea](#) eman dio Patxi Salaberri euskaltzain osoari Hizkuntzalaritzaren arloan egin duen ikerketa-lan zabalagatik.



2.5. Liburu azokak

2.5.1. Sarako Idazleen Biltzarra


Irailaren 6an Sarako Idazleen Biltzarraren 37. edizioa izan da. Euskaltzaindia urtero joaten da Sarara, eta hor Akademiaren azken argitalpenak erakusten ditu. Informazio gehiago [hemen](#) eta [hemen](#).

2020an, Euskaltzaindiak lau liburu hauek aurkeztu ditu Saran: *Euskal Literaturaren Antologia (Errenazimentutik Ilustraziora. XVII eta XVIII. mendeak)* (Karlos Otegi), *Adrien Gachiteguy: Laborantzatik hobeki bizitzeko* (Henri Duhau), *Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): hurbilpen kritikoa* (Itziar Madina) eta *Emil Larre 1926-2015: lekukotasun, kantu eta idazki* (Peio Jorajuria).



2.5.2. Bilboko Liburu Azoka

Euskaltzaindiak Bilboko 50. Liburu Azokan parte hartu du urriaren 1etik 11ra, eta Akademiaren azken argitalpenak egon dira ikusgai Areatzako gunean.



2.5.3. Durangoko Azoka


Euskaltzaindia 55. Durangoko Azokan izan da (denda digitalean) eta honako argitalpen hauek izan ditu erakusgai: *Euskera agerkaria* (2019, 2-1), *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera*, Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011), *Euskal Literaturaren Antologia / Errenazimentutik Ilustraziora. XVII eta XVIII. mendeak*, Emil Larre (1926-2015). *Lekukotasun, kantu eta idazki* eta *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Informazio gehiago hemen.




2.6. Ekimen artistiko-kulturalak

2020an honako ekitaldi hauek egin dira:

- Lautan Hiru izeneko antzerki festibala egin da Bira, Cafe Bar Bilbao eta 7Katu Gaztetxearekin elkarlanean. Guztira, 12 emanaldi izan dira. Informazio gehiago [hemen](#).
- Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko [laguntza berria](#) sortu du.
- [Euskaltzaindia: egunak eta lanak](#) dokumentala Bartzelonan ikusi ahal izan da, Bartzelonako Euskal Etxearekin elkarlanean.





2.7. Lankidetzak hitzarmenak

2020an, hitzarmen berri hauek sinatu dira:

- Apirilaren 24an, UZEIren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzak hitzarmen berria sinatu da. Informazio gehiago [hemen](#). 2019ko abenduaren 20an, UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa Euskaltzaindiaren erakunde atxikia izatea erabaki zen. Informazio gehiago [hemen](#).

- Uztailaren 23an, Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren 2020ko lankidetzak hitzarmena sinatu da. Informazio gehiago [hemen](#).

- Uztailaren 27an, Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren 2020ko lankidetzak hitzarmena sinatu da. Informazio gehiago [hemen](#).

- Urriaren 5ean, Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren 2020ko lankidetzak hitzarmena berri da. Informazio gehiago [hemen](#).

Euskaltzaindiak elkarlanean dihardu euskalgintza arloan lan egiten ari diren eta euskararekiko atxikimendua adierazi duten hainbat herri erakunde, akademia, komunikabide, elkarte, erakunde eta fundazioekin. Informazio gehiago [hemen](#).

LANKIDETZAK HITZARMENEN ZERRENDA:

<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/erakundeak/hitzarmenak>

3. JARDUERA AKADEMIKOA

3.1. Iker saila

3.1.1. Hiztegitza

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak
Orotariko Euskal Hiztegia Zientzia eta Teknologia
Hiztegia egitasmoa
Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa

3.1.2. Gramatika batzordea

3.1.3. Dialektologia

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

3.1.4. Onomastika

Onomastika batzordea
Exonomastika batzordea
Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

3.1.5. Literatura

3.1.6. Ahoskera

Ahoskera batzordea

3.2. Jagon saila

3.2.1. Corpus batzordea

3.2.2. Euskalkien lantaldea

3.2.3. Sustapen batzordea

3.2.4. Joanes Etxeberri egitasmoa

3.3. Egiturazko batzorde, lantalde eta egitasmoak

3.3.1. Argitalpen batzordea

3.3.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

3.3.3. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) batzordea

3.3.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra

3.3.5. Euskara Eskuz Esku egitasmoa

3. JARDUERA AKADEMIKOA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau-maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei. Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker saila eta Jagon saila. Lau urterik behin berritzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak ere izaten dituzte batzordeak. Beste alde batetik, lantaldeak sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera.

Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetaiko irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

Batzorde akademikoak eta lantaldeak egoitzan, lurraldeetako ordezkarietan edo bideo bidezko hitzaldiak erabiliz biltzen dira. Idazkariordearen zeregina da batzorde horien jarraipena eta koordinazioa aurrera eramatea.





3.1. Iker saila

3.1.1. Hiztegitza

Lexikografia ikerketak behar-beharrezkoak dira hizkuntza akademia baten jardunean. Bai *Orotariko Euskal Hiztegia* bai *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak* etenik gabeko eguneratze prozesuan daude.

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak

Euskaltzaindiak hiztegitza-arloan egiten dituen lanen azken katebegia da. Hiztegi honen abiapuntua *Euskaltzaindiaren Hiztegia lantaldea* da, hiztegia osatzen duten formak proposatzeaz arduratzen dena. Proposatutako forma horiek adieraz eta adibidez hornitzen ditu *egitasmoko taldeak*, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (EH) osatzen du.

2020an, sarrera eta azpisarrera berriak gehitu dira hiztegian, etengabe eguneratzen baita. Horrekin batera, lehendik jasotako formak berraztertu eta adierak osatu dira. 2020an, 119 sarrera berri / 1200 azpisarrera berri / 1090 moldatutako forma sareratu dira. Ondorioz, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* bi aldiz eguneratu da 2020an: *urtarrilean* eta *uztailean*.

Orotariko Euskal Hiztegia

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) lan deskribatzailea da, ez arauemailea. Haren xedea garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. 2020ko abenduan *Orotariko Euskal Hiztegia* eguneratu da.

Gaur egun, 146.366 sarrera eta 57.016 azpisarrera ditu eta kopuru hori handituz doa egituratze-lanak aurrera egin ahala. Lan horiei esker, hiztegi azpisarrerak eta hainbat aldaera ere topatzeko gai da orain bilatzailea. Horrez gain, jadanik egituratutako 530.000 adibide inguru daude bilduta eta sailkatuta. Sarreraren nahiz azpisarreraren bilaketak zuzenean egin daitezke, baita definizioetako hitzak eta adibideetakoak ere.

Zientzia eta Teknologia Hiztegia egitasmoa

Egitasmo honek 2008an hasi zuen ibilbidea, zientziaren eta teknikaren alorrean erabilitako terminologia aztertze eta biltzeko asmoarekin. Osoko bilkurari arlo horietako oinarriko terminoen zerrenda aurkeztea da helburua, horrek onartu ondoren, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* txerta daitezten.

2020an, alorreko espezialistekin elkarlanean, Lurraren Zientzien Oinarriko Lexikoa prestatu da.

Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoetatik abiatuta, eta *Orotariko Euskal Hiztegia* bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa, Euskal Hiztegi Etimologikoa egitea ipartzat hartuta.

2020an, bi egiteko nagusi izan dira egitasmoan: batetik, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren (EHHE-200)* bertsio elektronikoa prestatu da. Bestetik, 2019an egindako jardunalditik eratorritako argitalpena prestatu da.

Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Lexikoaren Behatokia Euskaltzaindiak UZEI, Elhuyar eta UPV/EHUko IXA taldearekin elkarlanean egiten duen proiektua da. Helburua XXI. mendeko corpusa osatzea da, testu etiketatutako eta lematizatutako biltzen dituen eta lexikoaren azterketarako modu egokian antolatua eta metadatu hornitua dagoena. Lexikoari buruzko arauak eta proposamenak dokumentatzeko tresna guztiz baliagarria da.

2020ko egiteko nagusia corpusari 22.000.000 testu-hitz gehitzea izan da. Horrela, urte bukaeran 100 milioi testu-hitzetara iritsi da corpusa. 2021eko udaberrian eguneratuko da Lexikoaren Behatokia.

3.1.2. Gramatika batzordea

Gramatika Batzordearen zeregin nagusia euskararen gramatika lantzea da, Euskaltzaindiaren gramatika.

2020an, bi argitalpen prestatu dira: batetik, Euskararen Gramatika argitalpena eta, bestetik, 2019an egindako jardunalditik eratorritakoa.

3.1.3. Dialektologia

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) ahozko euskararen aldaerak mapetan jasotzea du helburu.

2020ko abenduan *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa - XI. liburukia* argitaratu da, eta bertan itsas arrantzari eta gizarte-bizitzari lotutako lexikoa landu da.

2020ko otsailaren 27an Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalak eta Oihaneder Euskararen Etxeak, Laboral Kutxaren babesarekin, *Euskara ibiltaria* erakusketa interaktiboa aurkeztu dute.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arteko lotura-gakoak aztertu ditu Amaia Jauregizarrek 2020ko abenduan aurkezturiko *doktorego-tesian*.



3.1.4. Onomastika

Onomastika batzordea

Batzordearen eginkizuna euskal onomastika aztertzea eta arautzea da, hau da, pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak. Termino onomastikoei buruzko ikerketak eta berrikuspenak egin, eta irizpideak ezarri behar ditu, eta egiaztatze- eta aholkatze-lanak ere egin behar ditu.

2020an egindako lan nagusiak honako hauek izan dira:

- Euskal Herriko herrialdeetako Administrazio publikoetatik, udal eta herrietatik herri-izenei buruzko eskariak aztertu, erabakiak hartu eta erantzun dira.
- Pertsona-izenei buruzko eskariak aztertu eta erantzun dira.
- *Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginen izenak 192. araua argitaratu zen* azaroaren 2an.
- Euskal Herriko hondartzen izenak arautu eta Euskal Onomastikaren Datutegian (EODAn) txertatu dira.
- EODAn aurrebistan leku-izenen izendapen eta ordain guztiak erakusteko eta datuak eguneratzeko eskaera bidali zaito IKT batzordeari.
- Zeinu diakritikoei buruzko irizpide-txostena: Exonomastika eta Onomastika batzordeetan, diakritikoei buruzko txostena ontzat eman da.
- Toponimia arautzeko irizpideak landu dira.
- ECO-Euskal Corpus Onomastikoa kontsultatzeko web-aplikazioa eguneratu da batzordean onartutako irizpideekin.

2019an egindako jardunalditik eratorritako *Euskal onomastika aplikatua XXI. mendean* liburua argitaratu da.

Exonomastika batzordea

Exonomastika batzordearen zeregina Euskal Herriaz kanpoko izen berezien arloa lantzea da. Hartan, era guztietako leku-izenak eta pertsona-izenak sartzen dira. Batzordeak, halaber, proposamenak egiten ditu kanpoko leku- edo pertsona-izenetatik eratorritako bestelako izen arrunten arloan; adibidez, hizkuntza-izenetan (glotonimoetan), herritarren izenetan edo kanpoko izenetatik eratorritako bestelako adjektibo erreferentzialetan. Batzordearen plangintzaren arabera lanez gainera -irizpenak eta araugaiak prestatzea-, herritarrek edo erakundeek Euskaltzaindiari egiten dizkieten exonomastikari buruzko galderei erantzutea ere bada batzordearen zeregina.

2020an, batzordeak proposatuta, arau hauek onartu edo/ eta argitaratu ditu Euskaltzaindiak:

- *Frantziako Errepublikako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenak* (36. araua).
- *Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak* (191 araua).

Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) euskal izen bereziek euskaraz izan behar duten erabilera egokia finkatzeko tresna izateko asmoz abiatutako egitasmoa da. 2020. urtean zehar, honako lan hauek egin dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoan HPSren datutegiak dituen leku-erregistroak errepasatu dira eta ECON dauden informazioak txukundu eta osatu dira.
- Onomastika batzordean toponimia arautzeko irizpideen azterketa, eztabaida eta berridazketa lanak egin dira.
- Exonomastika batzordearen azken arauetako informazioa ECON txertatzeko prozedura finkatu da.

Gasteizko toponimia egitasmoa


Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren artean sinatutako lankidetzak-hitzarmenari esker, 1996tik egiten ari da Gasteizko toponimia historikoa izeneko ikerketa-proiektua, barnean hartzen ditu hala hiriburua nola XIII. mendean geroztik pixkanaka anexionatutako 64 herrixka edo biztanle-landaguneak.

Proiektuaren helburu nagusia udalerriko leku-izen guztien azterketa historiko-linguistikoa, sailkapena eta normatibazioa egitea da; horretarako, bai tokiko agiritegietan (sei mendeko aldi bat da, XIV-XX. mendean), bai gaur egungo agiritegietan dauden leku-izenak hartzen dira kontuan. Ikertzeko eta emaitzak argitaratzeko, XI. mendean (1025. urtean) Araba osatzen zuten antzinako merindadeen arabera multzokatu dira herriak. Merindade horiek *Donemiliagako Goldea* dokumentu ezagunetan aipatzen dira, eta, gaur egungo muga administratiboekin bat ez badatoz ere, gidaritzat hartu dira ikerlana planifikatzeko eta aurkezteko.

2020ko lanik esanguratsuenak honako hauek izan dira: batetik, *Arratzua III* liburukiaren prestaketa eta, bestetik, *Dibiña I* datutegiaren prestaketa.

3.1.5. Literatura

Euskal Literaturaren Antologia (ELAN) lantzen ari den taldeak, 2020an, *Euskal Literaturaren Antologia. Testuak eta Argibideak* egitasmoaren [bigarren liburukia kaleratu du](#). Errenazimentutik Ilustraziora arte sortu zen produkzioa biltzen du (XVII eta XVIII. mendeak).



3.1.6. Ahoskera

Ahoskera batzordea

Batzordearen eginkizun nagusiak 1998an plazaratutako Euskara Batuaren Ahoskera Zaindurako (EBAZ) arauen lantze, garatze eta komunikazioa dira. Estandarizatzea ahulduko lukeen monoestilismoari (bai estandarra bakarrik erabiltzeari, bai euskalkiak bakarrik erabiltzeari) aurre egiteko, Batuaren zubigintza-egitekoa indartu nahi da, EBAZ arauak dagokien testuinguruan kokatuaz.

2020an ahoskeraren irakasgarritasunerako bideak landu eta aholkularitza bilatze lanak landu eta sendotu dira.

Bina ikastaro antolatu dira, Bilbon eta Donostian, "Euskaraz ahoskatzen ikasi eta irakatsi" izenburupean.

2019an egindako jardunalditik eratorritako argitalpena prestatu da.



3.2. Jagon saila

3.2.1. Corpus batzordea

Batzorde honen zeregin nagusia euskararen corpora eta hizkuntzaren kalitatea zaintzea da. Batzordearen egituran, hizkuntzaren alorreko galde-erantzunen datu-basea garatzen duen Jagonet zerbitzua dago. Euskaltzaindiari iristen zaizkion eta Zuzendaritzak Corpus batzordearen esku utzitako irizpen-eskeak aztertzea eta epaitzea du lanik behinena.

3.2.2. Euskalkien lantaldea

Jagon saileko Corpus batzordeko atal gisa sortu zen Euskalkien lantaldea 2001. urtean. Euskalkiek duten eta izan behar duten tokiaz gogoeta eta azterketak egitea da Euskalkien lantaldearen xedea.

2020an, *Labayru Hiztegiko* Z letrako 50 sarrera landu dira. Horietatik, osotara, 26 hitz proposatuko dira *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* 3. itzulirako, eta 24 hitz baztertu dira (hitz horietako batzuk beste euskalki batzuetakoak dira).



3.2.3. Sustapen batzordea

Euskaltzaindiak 1999. urtean eratu zuen Sustapen batzordea, Jagon sailaren barruan, euskararen estatusa babesteko helburuarekin. 2020an egindakoak honako hauek izan dira:

- Ezkerraberi Fundazioarekin antolatutako *“Euskara batua eta ahozko erabilera. Korapiloak eta erronkak”* jardunaldiko txostenak argitaratu dira [Jagon bildumako 20. alean](#).
- *Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei? XXV. Jagon jardunaldia* egin da azaroaren 6an. Hitzaldien [bideoak](#) ikusgai.
- XXIII., XXIV. eta XXV. Jagon jardunaldietako testuak jaso dira, Jagon bildumako 21. eta 22. aleak prestatzeko.
- *Immigrazioa eta euskara: ikuspegi berri baten beharraz mintegiko txostenak argitaratu* dira.
- *Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak* mintegia antolatu du Bilbon, uztailaren 21ean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.
- *Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak* mintegiko testuak jaso dira.
- *Immigrazioa eta euskara: udaletako politika berriak* mintegia antolatu du Bilbon, abenduaren 15ean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan.







3.2.4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)

Euskararen Historia Soziala (EHS) deritzon Euskaltzaindiaren egitasmoak giza dimentsioa ikertzen du, aldi historiko eta herrialdearen gune jakin batzuetan islatuta, euskararekiko harremanetan jarrita, eta ondoren gurearekin ukipenean izan diren beste zenbait hizkuntzarekin. Beraz, diziplinarteko jarduera da, hizkuntzaren soziologiaren, hizkuntzalaritzaren, eta, jakina, historiaren oinarritzko elementuak konbinatzen dituena. Honako hauek dira 2020an egindako lan nagusiak:

- 2015ean prestatu zen Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa argitalpenaren ingelesezko laburpen-liburua prestatzen jarraitu da.
- Taxonomia soziolinguistikoaren azterketa teorikoa: hizkuntzen historia sozialari lotutako bibliografia berria (2014tik aurrera) aztertu eta berrikuntzak EHsko ereduaren nola integratu daitezkeen aztertu da.
- *Hitz-erabidea, Euskararen Historia Sozialerako iturri* garatzen jarraitu da.

- Donostian historikoki mintzatu izan diren (gutxienez) bost hizkuntzen historia sozialaren eboluzioaz egindako jardunaldian irakurri ziren txostenak jaso eta moldatzen jarraitu da eta **Etxeberri** bildumako liburu batean argitaratuko dira.
- Joanes Etxeberri egitasmoak zenbait euskal udalerritan egin diren soziolinguistika historikoari buruzko hainbat ikerketatan parte hartu du.

3.3. Egiturazko batzorde, lantalde eta egitasmoak

3.3.1. Argitalpen batzordea

Batzorde honek Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak programatu eta antolatzen ditu. Horien artean, Euskera agerkaria, Akademiaren aldizkari ofiziala, 1919tik kaleratzen dena -nahiz eta 1938-1952 eta 1954-1955 urteen artean etenak izan-. Agerkari horren bitartez, Euskaltzaindiak bere lanak ezagutzera eman ohi ditu.

2020an agerkariaren bi zenbaki aurkeztu dira, lehenak, bizitza akademikoaren berri eman du, eta, bigarrenak, arloko ikerketa-lanak biltzen ditu. Batzordearen zuzendaritzapean, Argitalpen zerbitzuak argitalpenen egunerokoak kudeatzen ditu. 2020an argitaratu diren lanen berri Argitalpen zerbitzuaren atalean ematen da.

2020ko urrian *Euskera agerkari akademiko-zientifikoa eraberritu* du Euskaltzaindiak.

3.3.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

Azkue Biblioteka eta Artxiboa Euskaltzaindiaren zerbitzura dago. Horrez gainera, zabalik dago ikertzaile ororentzat, eta, bere ahalbideen neurrian, euskal kultura gaien ikerkuntza eta hedapena sustatzen eta laguntzen saiatzen da.

2020an Azkue Biblioteka eta Artxiboaren ohiko zereginak bideratu dira, lan garrantzitsuenei jarraipena eginez.


3.3.3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordea

Batzorde honen bi zeregin nagusiak dira Euskaltzaindiaren edukiak erabiltaraztea eta gizarteratzea, eta testu-corpusak elikatzea, egituratzea, bateragarri bihurtzea eta gizarteratzea.

3.3.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzordea

Batzorde honen helburu nagusia *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE) prestatzea da. Hein berean, eskuliburuaren asmoa Euskaltzaindiaren jardura arauemailearen berri ematea da, eta, beraz, euskararen hainbat ikerketa eremu arautzen ditu: ahoskera, lexikoa, kalko okerrak, morfologia, sintaxia, onomastika eta ortotipografia. Eskuliburuaren ikuspegia erabat praktikoa da eta euskal hitzun jantzia (EGAtik gorakoa, baina espezialista izan gabe) da hartzailea.

2020an *JAGONET kontsulta-zerbitzua* indarberritu du Euskaltzaindiak. Azaroan *Euskara Batuaren Eskuliburua* ongi erabiltzeko *bi saio* antolatu dira Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean.






3.3.5. Euskara eskuz esku egitasmoa

Euskara eskuz esku (EEE) proiektuak Ipar Euskal Herriko hiztunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen duen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu.

2020an *Euskara Eskuz Esku* webgunea aurkeztu du Euskaltzaindiak, Ipar Euskal Herriko batasunari eginiko ekarpen gisa.



4. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

4.1. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua

4.2. Onomastika zerbitzua

4.3. Argitalpen zerbitzua

4.4. Informatika zerbitzua

4.5. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

4.6. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua

4. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu horiek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio-lanak eta hor kokatzen dira zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpenak, Komunikazioa eta Irudia, eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia –horren barruan dago

Jagonet zerbitzua–, berriz, Luis Villasante Euskararen Ikergunean dago kokatuta.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan, hots, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzari buruzko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Halakoak egoitzatik eta ordezkarietatik bideratzen dira.

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan horien guztien berri ematen dio Zuzendaritzari, bai eta, ezarritako epeetan, dagokien herri administrazioei ere, eta beharrezko txostenak prestatzen ditu. Herri-aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, batzorde teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

4.1. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua

Zerbitzua bost atal nagusitan bereizten da:

- Azkue Bibliotekaren Artxiboari dagokionez, Eugenio Arotzenaren Antzerki bildumaren katalogazioa amaitu eta jendearen eskura jarri da, Artxiboan jasotako funtsen kudeaketa arrunta egin da eta Piarres Xarritonen biblioteka eta artxiboa katalogatzen hasi da.
 - Azkue Bibliotekako Katalogoa mantendu eta eguneratu da.
 - Hildako euskaltzain osoen fitxak (64) eta hildako ohorezko euskaltzainenak (73) prestatu dira.
 - Dokumentazio Zentroari dagokionez, euskaltzainen Dossier Bildumaren mantentze-lanak egin dira, euskaltzain osoen fitxak eguneratu dira eta Azkue Bibliotekako Irudiak atalaren mantentze-lanak egin dira.
 - Informazio, Harrera eta Kopia Zerbitzuaren bidez, Bibliotekara hurbildu diren 71 laguni arreta-zerbitzua eskaini zaie. Horiez gain, 1.300 eskari inguru jaso eta erantzun eta 17 kopia-eskari gauzatu dira. Gainera, talde-bisita bat antolatu da.
- Aipaturikoez gain, 2020an, Ondare Jardunaldien baitan ekitaldi bat antolatu da.



4.2. Onomastika zerbitzua

Zerbitzuak EAEko Jaurlaritzak eta aldundiek, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), Euskal Hirigune Elkargoak, udalek, herriek, elkarteek, enpresek eta gizabanakoek egindako eskariak aztertu, erantzun proposamenak prestatu eta erantzun ditu: txostena, irizpena, ziurtagiria edo bestelakoa.

Halaber, ponte-izen eta abizenei buruzko kontsultak aztertu, erantzun proposamenak prestatu eta dagozkien erantzunak bideratu ditu. Pertsona-izenei buruzko 420 eskari artatu ditu, eta 100 deiturei buruzkoak. Eskari gehienak Erregistro zibiletatik eta bake-epaitegietatik etorri dira, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegotik eta

Nafarroako Foru Komunitatetik, nahiz eta Espainiako estatutik ere batzuk jaso diren.

EUDELein sinatutako hitzarmenaren baitan, udal mapak eta txostenak sortzeko laguntza eman da: zehazki Bilbo, Elgeta, Errigoiti, Fruiz, Harana, Hernani, Ibarra, Iurreta, Lapuebla de Labarca, Leintz-Gatzaga, Leioa, Oñati, Ondarroa, Sopuerta, Urduña eta Villabonako mapetako toponimia aztertu da.

Iparaldeko bide eta kale izenei dagokienez, honako hauek igorri zaizkio Euskal Hirigune Elkargoari: Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Atharratze, Azkarate, Bastida,

Behorlegi, Bidaxune, Biriatu, Bithiriña, Buztintze-Hiriberri, Donapaleu, Donazaharre, Donibane Garazi, Duzunaritze-Sarasketa, Etxarri, Etxebarre, Hazparne, Izura-Azme, Labetze-Bizkai, Landibarre, Larribarre-Sorhapürü, Lekorne, Lekuine, Lohitzüne-Oihergi, Luhuso, Lüküze-Altzumarta, Santa Grazi, Sara, Uhartehiri eta Urepele.

Horiez gain, zerbitzuko galdera-erantzunen datu-basea eta Euskal Herriko eliza eta ermita ezagunen euskal izendegia osatu dira, ECon onomastika arauak txertatu dira, Eneko Arista errege izenari buruzko ikerketa eta «Elizate» hitzari buruzko txostenak egin dira.

4.3. Argitalpen zerbitzua

Orain arte aipaturiko argitalpenez gain, 2020an honako hauek ere argitaratu dira:

.Euskera 2019, 1.

.Euskera 2019, 2, 1.

.Eñaut Etxamendiren obra narratiboa (1964-2011): hurbilpen kritikoa.

.Euskal Literaturaren Antologia. Testuak eta argibideak 2: Errenazimentutik Ilustraziora. XVII eta XVIII mendeak.

.Euskararen Herri Hizkeren Atlasa XI.

.Adrien Gachiteguy: Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko.

.Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak.

.Emil Larre 1926-2015: lekukotasun, kantu eta idazki.

.Arrazioak eta olerkiak 2019.

.Biografía de Arturo Campión.

.Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia.

.Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2019).

.Toponimia de Vitoria VII / Gasteizko Toponimia VII.

Euskera agerkariaren kalitatea sustatzeko datu-baseak eguneratu egin dira eta *Euskera* agerkariaren webguneko atala eraberritu da.



4.4. Informatika zerbitzua

Euskaltzaindiaren Informatika zerbitzuaren helburu nagusia erakundearen telekomunikazio eta informatika zerbitzuak egoki mantentzea da. Horrekin batera, zerbitzu horiek hobetze aldera, berrikuntza proiektuak koordinatzen dira. 2020an zehar honako lan hauek egin dira:

- Euskararen Historia Soziala, Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa eta Euskararen Herri Hizkeraren Atlasaren egitasmoen datutegien identifikazioa, datuen egituratze-mailaren azterketa eta lan-prozedurak ahal bezainbeste automatizatzeko irtenbideak landu dira.
- Orotariko Euskal Hiztegiaren estilo-orria berritu da eta adibide akastunak automatikoki konpontzeko irtenbidea landu da.

4.5. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta, era berean, Akademiak beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen berri ematea.

Horretarako, zeregin hauek egin ditu Komunikazio eta Irudi zerbitzuak 2020an: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzea (gaur egun 161 hedabidek -edo norbanakoek- jasotzen dituzte Euskaltzaindiaren deialdi eta prentsa-oharrak); euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea; webguneko bestelako atalak gaurkotzea; Plazaberri bloga ere kudeatzea (106 albiste argitaratu dira), sare sozialetan Akademiak dituen plataformak zaindu eta elikatzen ditu, egunero (Facebook, Twitter, Youtube eta Instagram); azkenik, Euskaltzaindiaren ekitaldietako argazkien eta bideoen ardura ere zerbitzu honi dagokio.

4.6. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Euskaltzaindiak 2013ko Barne Jardunaldietan, Akademiako beste zerbitzuekin elkarlanean jardungo zuen zerbitzu zentral eta orokor bat sortzea erabaki zuen: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia. Behatokiaren lanaren helburuak hauexek dira: a) Euskaltzaindiak eredugarria izan behar du bere argitalpenen euskara mailari dagokionez. b) Akademiaren ekoizpenak zabalkunde didaktikoa izan behar du. Horretarako baliabide guztiak erabiliko ditu eta tresna informatikoak lehenetsiko ditu. c) Euskaletzagintzak zer premia duen identifikatu eta haren eskariak ahalik eta azkarren erantzun. d) Lan eta beharrian hurbilenak lehenetsi, urrutiagoko lanak alboratu gabe. HIZBEAk hainbat liburu eta lan zuzendu ditu 2020an, Zuzendaritzak, Argitalpen batzordeak eta Irudia eta Komunikazio zerbitzuak eskaturik.

5. GIZARTERATZEA: WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK

5. GIZARTERATZEA: WEBGUNEAK ETA SARE SOZIALAK


Sare sozialekin batera, webgunea da Euskaltzaindiaren leihorik eraginkorrena.

- 2020an, 778.234 erabiltzaile izan ditu Euskaltzaindiaren webguneak, saioak 1.605.641 izan dira, 6.636.765 orrialde bisitatu dituzte erabiltzaileek, eta saio bakoitzaren iraupena ia bost minutukoa izan da.

- 2019ko datuekin alderatuta -hau da, mendeurrenaren urteko datuekin erkatuta-, erabiltzaileen jaitsiera txikia sumatu da; aitzitik, erabiltzaileek maizago eta denbora luzeagoz erabili izan dituzte webguneko tresna

eta zerbitzuak. Hortaz, ondorioztatu daiteke 2020an erabiltzaileen fideltasuna hobetzea lortu duela Euskaltzaindiak.

Datu nagusiak (2019koekin alderatuta)



Erabiltzaileak
- % 2,97

2019
1.581.636
Saioak



2020
1.605.641
Saioak




Saioak
+ % 1,52

Tresnak :

Tresna eta zerbitzu berdinen erabilera-datuak ikusita, argi dago erabilera handiagoa izan dela 2020. urtean, bai erabiltzaileen ikuspegitik, bai egindako bilaketa-kopuruaren ikuspegitik ere.



+ % 2,24
Orrialdeak



2019: 04:30
2020: 04:44



+ % 5,44
Saioaren iraupena

Erabiltzaileak

Gunea	2020	2019	%
EODA	185.356	120.042	54,41
OEH	148.372	67.791	118,87
EH	122.786	92.383	32,91
Bilatzailea	80.468	64.407	24,94
EBE	12.327	7.377	67,10
JAGONET	3.651	3.349	9,02
EHHA	2.784	1.298	114,48
Hizkuntza-zuzenbidea	2.337	1.737	34,54
Adierazpenak	1.855	2.380	-22,06
Euskara ibiltaria	1.747	1.083	61,31
Argitalpenak	1.104	898	22,94
EEE	933	-	-

Bilaketak

	2020	2019	%
	455.970	278.643	63,64
	532.771	186.681	185,39
	1.437.795	1.112.259	29,27
	384.436	257.816	49,11
	54.552	35.964	51,69
	8.611	7.620	13,01
	17.062	12.023	41,91
	2.135	3.413	-37,45
	2.643	3.870	-31,71
	2.171	1.568	38,46
	2.076	1.447	43,47
	3.717	-	-

Webguneko berrikuntza nagusiak - 2020

2020-01-15

Euskaltzaindiak bere Hiztegia eguneratu du eta azken sei hilabeteotan 758 forma berri jaso ditu

2020-04-16

Koronabirusaren oinarritzko lexikoa plazaratu du Euskaltzaindiak

2020-06-12

Konfinamendu garaian, % 23,25 igo da Euskaltzaindiaren webgunearen erabilera

2020-06-24

Frantziako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenen araua eguneratu eta berritu du Euskaltzaindiak

2020-06-29

Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenen araua argitaratu du Euskaltzaindiak

2020-07-09

Euskaltzaindiak bere Hiztegia eguneratu du eta azken sei hilabeteotan 719 forma berri jaso ditu

2020-08-13

Euskaltzaindiaren agiritegia: "Anaitasuna" aldizkaria

2020-08-07

Euskaltzaindiaren agiritegia: Azkueren lanak sarean

2020-08-21

Euskaltzaindiaren agiritegia: "Auspoa bilduma"

2020-08-28

Euskaltzaindiaren agiritegia: Luis Villasanteren idazlanak

2020-10-02

Euskaltzaindiak JAGONET kontsulta-zerbitzua indarberritu du

2020-10-07

"Euskara eskuz esku", Ipar Euskal Herriatik batasunari eginiko ekarpena

2020-10-30

"Euskera" agerkari akademiko-zientifikoa eraberritu du Euskaltzaindiak

2020-12-18

"Orotariko Euskal Hiztegia" eguneratu du Euskaltzaindiak

2020-12-31

Euskaltzaindiaren webguneko tresna nagusien erabilera nabarmen igo da 2020an

6. BALANTZE EKONOMIKOA

6. BALANTZE EKONOMIKOA

2020. urtea

EUSKALTZAINDIA

Balantzea (Eurotan)

AKTIBOA

	2020/12/31	2019/12/31
AKTIBO EZ-KORRONTEA	497.968	637.780
Ibilgetu ukiezina	510	85.289
Aplikazio informatikoak	510	85.289
Ibilgetu materiala	466.857	521.890
Lurrak eta eraikuntzak	393.057	427.742
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	73.800	94.148
Epe luzeko finantza-inbertsioak	30.601	30.601
Beste aktibo finantzarioak	30.601	30.601

	1.268.367	1.187.527
AKTIBO KORRONTEA	1.268.367	1.187.527
Izakinak	27.214	33.209
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	37.160	88.981
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	566.257	662.232
Hainbat zordun	15.235	19.050
Zordunak, Herri Agintek	551.022	643.182
Epe laburreko finantza-inbertsioak	800	800
Epe laburreko periodifikatzeak	1.297	3.625
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	635.639	398.680
AKTIBOA GUZTIRA	1.766.335	1.825.307

PASIBOA

	2020/12/31	2019/12/31		31/12/2020	31/12/2019
ONDARE GARBIA	1.411.807	1.426.949	PASIBO KORRONTEA	239.750	398.358
Fondo propioak	1.140.752	1.141.971	Epe laburreko zorrak	7.964	2.251
Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.141.971	1.144.283	Beste pasibo finantzarioak	7.964	2.251
Ekitaldiko soberakina	(1.219)	(2.312)	Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	231.786	396.107
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	271.055	284.978	Hornitzaileak	112.853	119.611
PASIBO EZ-KORRONTEA	114.778	-	Langileria	235	30.383
Epe luzeko hornidurak	114.778	-	Hartzekodunak, Herri Aginteak	118.698	246.113
Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	114.778	-			
			PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA	1.766.335	1.825.307

2020. urtea

EUSKALTZAINDIA

Galdue-irabazien kontua (Eurotan)

Ekitaldia	2020	2019	USTIAPENENKO SOBERAKINA	(759)	1.559
Erakundearen berezko jardueraren sarrerak	2.633.909	3.014.120	Sarrera finantzarioak	24	41
Salmentak, promozioak eta lankidetzak hitzarmenak	51.559	99.665	Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	24	41
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.582.350	2.914.455			
ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa	(5.995)	9.757	Gastu finantzarioak	(484)	(3.912)
			Hirugarrenetikiko zorrenak	(484)	(3.912)
Ustiapeneko bestelako sarrerak	5.495	12.010	ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	(460)	(3.871)
Pertsonal gastuak	(1.602.331)	(1.428.276)	EKITALDIKO SOBERAKINA	(1.219)	(2.312)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.132.370)	(1.086.795)			
Gizarte-zamak	(355.183)	(341.481)			
Hornidurak	(114.778)	-			
Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.037.500)	(1.545.618)			
Kanpoko zerbitzuak	(1.035.274)	(1.544.297)			
Tributuak	(2.124)	(1.313)			
Merkataritza eragiketetatik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(102)	(8)			
Ibilgetuaren amortizazioa eta hondatzea	(140.588)	(79.982)			
Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapital diru-laguntzak	13.915	19.548			
Ezohiko emaitzak	132.336	-			



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



www.euskaltzaindia.eus

EGOITZA

BIZKAIA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO

+34 944 15 81 55
info@euskaltzaindia.eus

IKERKETA ZENTROA

LUIS VILLASANTE

Tolare baserria. Almortza bidea, 6
20018 DONOSTIA

+34 943 42 80 50
donostiaordez@euskaltzaindia.eus

ORDEZKARITZAK

ARABA

Etkezarra
Gatzelako atea, 54
01007 VITORIA-GASTEIZ

+34 945 23 36 48
gasteizordez@euskaltzaindia.eus

GIPUZKOA

Tolare baserria. Almortza bidea, 6
20018 DONOSTIA

+34 943 42 80 50
donostiaordez@euskaltzaindia.eus

NAFARROA

Conde Oliveto, 2.2. solairua
31002 IRUÑEA

+34 948 22 34 71
nafordez@euskaltzaindia.eus

IPAR EUSKAL HERRIA

Gatzelu Berria. Paul Bert plaza, 15
64100 BAIONA

+33 (0) 559 25 64 26
baionaordez@euskaltzaindia.eus